

Lurbiran

2008-2009 ikasturtean lehenengo hiruhilekoan azalpen testua lantzea proposatu ziguten Eskola Txikietako Elena Laizek zuzentzen duen mintegitik. Honekin batera mutiko brasildar bat etorri zen eskolara eta Agenda 21en ekitatea gaia landu behar genuen. Hau dena ikusita, bidai handi bat egitea pentsatu genuen. Lurbirari buelta bat ematea, munduan zehar jendea nola bizi den ezagutzeko.

Bisitariak

Lan honekin hasteko aurrena irakasleok Kapuszinskiren hitzaldi bat irakurri genuen "El encuentro con el otro como reto del siglo XXI", martxan jartzeko; guk non kokatu jakiteko lan honi aurre egiteko orduan.

Lurbiran bizi gara eta ezagutu nahi dugu. Oso txikia egin da mundua eta mundu osoko jendez inguratuta gaude.

Mundua ezagutu nahian, gure ingurura begiratzen hasi ginen. Pentsatu genuen posible izango litzatekeela gure inguruan bizi diren atzerritarrak eskolara ekartzea. Bisita hauek izango lirateke lanaren ardatz. Mundu osoko jendea ezagutu nahi genuen, ahal bagenuen, herrialde, modu, kultura eta kontinente desberdinetakoak, munduko "laburpena" egiteko.

Garrantzitsua iruditzen zitzaigun bisitariak kanpokoak izatea, ez leku desberdinetan egondako hemengo jendea, baizik eta hemen bizi diren kanpoko pertsonak, horrela bisitak zentzu gehiago edukiko luke. Irizpide horiekin hasi ginen lanean.

Egin genuen lehenengo lana eskola girotzea izan zen: Eskaileretan eta pasilloetan mundu guztiko argazkiak jarri genituen. Halaber, etxeetatik eta liburutegitik munduari buruzko liburuak bildu genituen, behar genituenean erabiltzeko eta nahi genuenean ere irakurtzeko. Honetaz gain pasilloan munduko mapa mutu bat jarri genuen gure bisitarien herrialdeak kokatzen joateko.



Ondoren, beste lanarekin hasi ginen: Non aurkitu atzerritarrak gure herrian? Hasteko, Junior Brasildik etorritakoa genuen. Beste bisitari gehienak Tolosaldean aurkitu genituen, gure inguruan bizi zirenak: Txinatar jatetxeakoak, koilareak saltzen dituen senegaldarra, harrerako etxean dauden etorkin gazteak, agureak zaintzen dituen emakume ukraniarra, Finlandiako lagun bat, Hegoameriketara bidaiatzen dabilen herriko gaztea, Indian ONG batean lan egiten duen neska, eta pixka bat gehiago kostata, japoniarra.



Sibeli: Brasil



Mia: Finlandia



Xin Pin eta Xiaofeng: China



Baba: Senegal



Luda: Ukraina



Agurtzane: Mexiko eta Brasili buruz



Mohamed, Abdul, Driss eta Yunes:
Maroko eta Sahara



Yasushi: Japon



Carmen: Indiari buruz

Bidaia

Junior, mutiko brasildarra eta bere amarekin hasi ginen bidaiatzen. Ondoren beste bisitari guztiak etorri ziren hiruhilabetean zehar. Guztiei eskolako sarrera nagusian jatorrizko hizkuntzan ongi etorria idatziz jartzen genien.



Bisitari bakoitzari eskatu zitzaien gutxienez bertako abesti bat ekartzea eta eskola, herriari, ohiturei, bizimoduari buruzko informazioa. Bisitariak etortzen zirenean denok elkartzen ginen eta lehenengo beraien herria google earthen ikusten genuen, distantzia, paisaia ikusiz. Aipatzekoa da Baba Senegalekoa, etorri zenean nola unkitu zen bere herria hain gertu ikusita. Aurrez ikasleekin prestatutako hiztegitxo bat osatu zen hizkuntza guztietan. (arabiarrez, txinoz...)

Hiztegia					
Ongi etorri:	Bem venido	Tervetuloa	Yamangayendo	Dabro pojajovatt	Ahlan
Kaixo:	Oi	Hei	Salam malecum	Privet	Salam
Polita:	Bonito	Kaunis	Dangaarafat	Kressivo	Zawer
Ama:	Mae	Haiti	samayi	mama	mam
Aita:	pai	Isa	samabal	papa	bat
Txakurra:	cachorro	Koira	jai	zobaaka	kelp
Eskola:	escola	Koulu	damalyan	skola	madri
Etxea:	casa	Koti	ker	dom	dar
Pertsona:	pesoa	Ihminen	nit	persona	insa
Umea:	menino	Lapsi	jale	lazi	teifel
Maite zaitut:	Te amo	Rakastan sinua	damabeg	astebekah	au kembal

Hau guztia bideoz eta grabagailuz grabatzen zen ondoren lan egiteko. Azken xedea guraso eta herriko jendearen aurrean azalpena egitea zen, gaia "munduko haurrak nola bizi diren ikustea eta gure bizimoduarekin alderatzea".

Geletan

Haur hezkuntzakoak bisitariak entzutera joaten ziren nahiz eta saio guztian ez egon. Beraiek ekarritako abestia kantatu eta dantzatu egiten zuten, google earthen ikusi eta kontatzen zutena entzun.

Geletan honelako lanak egin zituzten:

- Abesti guztiak buruz ikasi (9 hizkuntzetan)
- Herrialdeak mapan kokatu.
- Informazio gehiago liburuetatik bildu.
- Bisitari eta herrialdeen izenen txartelekin hizkuntz jolas asko .
- Liburuxka bat osatu egindako lanekin. Gabonak ere garai horretan izan ziren eta herrialde horietan nola ospatzen ziren ikusi genuen.
- Aldiro web eta blogean bisiten berri eman zuten.
- Asanbladan parte hartu aportazioak eginez.

LH 1.2.3 mailakoak bisitan etorritako testuetan oinarritu ziren gehienbat baina 3. mailakoak herrialde horiei buruzko testu batzuekin osatu dituzte testu hauek Senegal, Finlandia, Txina, India, Brasil eta Ukraina.

Irakasleak bilatu zituen materialak ahal zen neurrian euskaraz baina zenbaitetan informazioa gazteleraz ere eskaini zitzaizen, eta hortik azalpen testua prestatu zuten.

Ingurune klasetan ere gai honen inguruan ibili ziren beste modu batean: kontinenteak ezagutu, euren altxor garrantzitsuenak ezagutu, datuak jaso, datu taulak ulertu, grafikoak egin , kontinentei buruz azalpena egin zuten beste

gelakoentzat ... Hortaz aparte Txinari buruz lan berezia egin zuten, alde batetik Joko Olinpikoak izan zirelako, eta beste alde batetik Txinako datuak edozeinekin alderatzeko izugarriak direlako.

Beste alde batetik, Mexikon bizi dira gure gelako ume baten osaba izebak, horiekin kontaktuan jarri ginen emailen bidez eta Mexikori buruz egindako lanak bide hori hartu zuten.

Australia ezagutu genuen han ezagun bat bizi delako; ezagun hori irakaslea da eta bi eskolak kontaktuan jarri ginen interneten bidez. Lan hau ingelesez egin genuen. Ikasturtean zehar komunikazioa mantendu genuen.

LH 4. 5. 6.koek Hungry Planet liburutik ateratako argazkiak ikusi zituzten eta aldizkari batzuetatik horri buruz egindako erreportajeak irakurri eta munduko elikatzeko aukerei buruz idatzi zuten.

LH 4. 5. 6. mailakoak beste azalpen testu bat egin zuten: hartutako herrialdeetan azaldu ziren zenbait gai buruz:

Senegalen: Kayukoak
Mexikon: Kaleko umeak
Finlandian: Hezkuntza
Txinan: Hiru Arroiletako urtegia
Saharan: Saharako egoera
Indian: Mikrokredituak

Bakoitzak aukeratu zuen interesatzen zitzaion gaia; irakasleak bilatu ditu lehenengo materialak (ahal zen neurrian euskaraz) eta gero beraiek saiatu ziren informazio gehiago bilatzen, eta hortik azalpen testua prestatu zuten.

Lan hauek hizkuntzako orduetan egin ziren gehien bat, baina LH 4.5.6. mailan ingurune orduetan beste zenbait lan egin zituzten: Mundua kokatu, bisitetako herrialdeak alderatu, kontzeptu desberdinei begira: biztanleria, azalera,errenta per capita, giza garapen indizea landu dugu ere ... grafikoak egin genituen. Honaino iritsi ginenean, Giza Eskubideen Aldarrikapena landu genuen, eta oso garbi ulertu ziren.



Azkenean zein den gure lekua mundu honetan eta zein diren ditugun eskubideak, nola bizi garen, gizakiak zertan jarraitu behar duen borrokan hobeto bizitzeko... irekia gelditzen den hausnarketa interesgarria egin genuen.

Tutoritza orduetan "Binta y la gran idea" Senegalen grabatutako laburmetraia eta "Destino Clandestino" kayukoei buruzko erreportajea ikusi genituen; oso interesgarriak izan ziren.

Denon artean

Geletako lanetaz aparte denon artean zenbait ekintza egin genituen.

Horietako bat "**gela hutsa**" deitu geniona izan zen.

Bi egunetan eskolako gelak erabili ziren oso baliabide gutxirekin. Aipatzekoa da ikasleentzat sorpresa handia izan zela eskolara etorri eta gelak hutsak ikustea. Haur hezkuntza jostailu guztiak ezkutatu ziren eta txotxak, harriak, sokak, arkatza batzuk, borragoma bat, berziklatzeko orriekin egindako koadernoak eta klera utzi genituen.



LHn mahaiak guztiak arbelara begira jarri ziren eta klera, arkatzak, borragoma bat eta koadernoak besterik ez ziren utzi.



Psikomotizitate, ingelera, eta informatika gela itxi egin ziren eta jolasorduan ere jolasteko soka bat eta baloi bat izan zuten.

Primerako esperientzia izan zen batipat HHkoentzat. LHkoentzat denbora gutxiegia izan zen hutsune horretaz ohartzeko.

Bukatzen ari ginela, Josu Iztueta bidaiaria gonbidatu genuen eskolara gure lanarekin oso ondo zetorren proposamen bat zeukalako : Senegaleko eskualde baterako ambulanzia erosteko laguntza behar zuela esan zigun.

Orduan, testu guztiak prest, informazio pila bat jasota, laguntza eskaera batekin, geletako asanbladak egin genituen lanaren konklusioak ateratzeko, eta gero Eskolako Asanblada egin genuen ikasle guztien proposamenak eta konklusioak jasotzeko.



Ondoren eta lanari amaiera emateko, eskola osoaren artean azalpena egin genuen guraso eta bisitariarentzat. Ehun pertsona baino gehiago bildu ginen eta ordu bete pasatxo behar izan genuen azalpen osoa emateko. Hor ikasle guztiek hartu zuten parte abesten eta bere mailari zegokion azalpenak ematen.

Ebaluazioa

Ikasleen ebaluazioa iruditzen zitzaigun garrantzitsuena eta horri buruz aritu behar genuen, baina lan honek irakasleoi asko mugitu gaitu, asko ikasi dugu, eta oso erne sentitu gara, mundua zabaldu zaigu eta Kapuscinskiren "beste hori" adeitasunez hartzen saiatu gara, berari buruz ikasteko.

Asko ikasi dugu arlo askori buruz. Hiruhilekoan zehar modu desberdinetan ikasleek ikasitakoa jasotzen joan ginen: Banaka edo taldeka zenbait momentu hartu genituen hausnarketarako; zertaz ari ginen eta ze konklusio ateratzen ari ziren. Oso interesgarria.

Eskerrik asko, Sibeli, Mia, Xinping, Xiaofeng, Baba, Agurtzane, Luda, Emilio, Mohamed, Abdul, Driss, Yunes, Yasushi, Carmen, Josu, Mikel eta Yoliri mundua beste begi batzuekin begiratzen erakutsi diguzuelako.

Obrigado, kiitos, xie xie, geredef, spasiva, sucran, arigatou, thank you, muchísimas gracias, mila esker.

